



**Hiztegitxo**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>abaidura</b> nekadura, unadura	<b>Abaidura</b> moduko bat Irenek orduan, ez ziolako antzik ematen denborari, erlojua ere desagertu egin zitzaion eskumuturretik, gaua, eguna.	369
<b>adabaki</b> petatxua, txaplata	Organo gehienek gutxi daukate hasierakotik: <b>adabakiak</b> bata bestearen gainean.	153
<b>aditu</b> ulertu, entzun	Amaren erantzunak ezin izan zituen Irenek <b>aditu</b> , oso baxu ari zen.	101
<b>adurra ahotik</b> lerde jario	Ematen zuen ez zuela ezer ere ulertzen, <b>adurra ahotik</b> .	106
<b>agondu</b> zutitu, goititu	...ezer ez dela betiko, hori pentsatu nuela gogoratzen dut. Apur bat <b>agondu</b> nintzen, berehala neukan andrea berriro begira.	99
<b>ahapaldi</b> estrofa, poema zatia	Asko jota neska hilotzaren oihu bat agertzen da azken <b>ahapaldiren</b> batean: aitari egin dio oihu, esan dio bertuteari eutsi diola, liliari, floriari.	56
<b>aihotz</b> matxetea	Tirokatuta hil ziren batzuk, baina asko, gehienak, mailu kolpez eta <b>aihotz</b> kolpez, odol kolpez seguruenik, garun zatiekin eta kiratsarekin...	11
<b>aizto</b> ganibeta, kutxiloa	Jens Bodrogik <b>aiztoa</b> atera du poltsikotik. Mobrurengana hurbildu da. Izerditan dago Mobru...	114
<b>alakran</b> eskorpioia ( <i>alak.</i> hitz arabiarra)	Irene Arriasek uste zuen basamortuan bizi zela Jesukristori ogia ematen zion pelikulako ume hura; eskorpioiak, <b>alakranak</b> , arrubioak.	79
<b>alargundu</b> senar edo emazte gabe geratua	Gizon zaharrago batekin ezkondua, zuela gutxi <b>alargundua</b> uste dut, alargun gaztea halarik ere, diruduna, etxe batzuk zituena, errentak.	99
<b>aldare</b> meza emateko mahaia	Don José Miguelek esan zuen meza, eta <b>aldarearen</b> ondoan, eskuman, don Juan Gorostiaga zegoen jesarrita, besaulki granate batean.	78
<b>aldats</b> aldapa, malda pikoa	<b>Aldats</b> gogorra Alangobarri, autoa erdian geldituz gero eskuko freno behar duena: goiko partean Ireneren ataria, ia Alangon.	302
<b>alditxartu</b> ondoeztu	...eta hoztu egiten naiz, <b>alditxartu</b> ere bai batzuetan, uda izan arren, hotzik egon ez arren.	95
<b>aldra</b> saldoa, pilo, jende mordoa	Irenek mendebaldera begiratu zuen, pertsona asko zetorren handik, <b>aldrak</b> , urrun oraindik baina arin, ezin zuen argi ikusi, korrika ari zen, makurtuta.	344
<b>algaraka</b> karkaraka, kar-kar-kar	...eguerdia baino apur bat lehenago sartu zirela <i>interahamwe</i> taldeak hara, kantuan eta <b>algaraka</b> , eta aldarte horrekin hasi zirela jendea hiltzen...	12
<b>altzo</b> magala, sabel aldea	Umeak ez zion utzi, inoizko gogorren estutu zituen atzamarrak, <b>altzora</b> erakarri zuen poltsa.	162
<b>amaginarreba</b> amaxea, bikotekidearen ama	Kanpaiak entzuten dira askotan <b>amaginarrebaren</b> aginduz erraina hiltzen denean.	211
<b>amildu</b> erori, hondoratu	...igogailuko atea zabaltu zirenean, argia kanpora <b>amildu</b> zenean, atzera egin zuen umeak...	161
<b>amosal</b> lehergai mota, dinamita antzeko	...gubernuko presidenteordearen laguntzaile hurbiletako bat. <b>Amosala</b> eztandarazi zioten ondoan, 40 kilo.	194
<b>anana</b> fruta mota ( <i>piña</i> )	Lagun batek <b>anana</b> bat ere oparitu zion Olgari egun haietan, auskalo nondik atera zuen.	74
<b>antsia</b> aienea, kexu oihutxo	Umea hartu duzu gizona jantzi bitartean. Isildu egin da, baina <b>antsia</b> batzuk egin ditu oraindik.	117
<b>apurka-apurka</b> gutxika, emeki	Belartza batean eseri, arnasa <b>apurka-apurka</b> hartzen hasi eta usainera ohitzeko ahalegina egin nuen.	172
<b>arautu</b> erregulatua, finkatua	Hazkuntza <b>arautuan</b> ez zen ikasle ona izan William Faulkner, ez zuen batxilerra amaitu.	67
<b>arpilatu</b> ondasunak harrapakatu, sakeatu	Propaganda behar da umeentzat, militarren dantzaldiak, koronelen trajeak, heroiak, ezkontzak, lapurretak, zigortzen ez direnak, <b>arpilatzeak</b> , bortxaketak.	214
<b>arrea</b> grisa, kolore lohia edo iluna	...etxeko alfonbrari begiratzen zion, alfonbrako irudi absurdoei, iazko ume hilak, iruditzen zitzaion oso lurrin gutxi eragiten zutela, <b>arrea</b> lurruna...	277



<b>artatu</b> zaindu, atenditu	ETako kide bat <b>artatu</b> zuelako atxilotu zuten 1979an, baina hiru urte geroago hil zuten...	15
<b>arteztu</b> zuzendu, zutitu	Gorputza <b>arteztu</b> eta goragalea ez zen horren argia.	329
<b>asun</b> belarki urtikantea ( <i>ortiga</i> )	Beste zulo bat ikusi nuen halako batean, handiagoa, pertsona bat ateratzeko bestea baino askozaz errazagoa, sasi gutxiago, <b>asun</b> gutxiago...	344
<b>aztarrika</b> lurra ateratzen, induska	Ohetik jaiki, etxe osterara joan eta lurrean hasi zen <b>aztarrika</b> .	18
<b>aztoratu</b> asaldatu, urduritu	Apur bat <b>aztoratzen</b> zen askotan grabazioen aurrean, gero eta gutxiago ordea.	224
<b>bahitu</b> atxilotu	Gauza da lo eraman dutela neska <b>bahituta</b> , bostehun legoa bidian, mila legoa; sexurako nahi dute esnatzen denean, horretarako eraman dute.	53
<b>baioneta</b> fusilen amaierako sastakaia	...fusila dela pentsa dezake baten batek agian, <b>baioneta</b> , kalashnikova, metraileta izan zitekeen...	29
<b>bakandu</b> apartatu, bakarrik bezala dagoen	...herrira jaitsi ziren, bidetik jateko zerbaite eskatu zuten etxe <b>bakandu</b> batean, berdin zien ordurako nork ikusten zituen.	87
<b>bako</b> gabe, barik	Amaitzen ari zen paseoa, inor <b>bako</b> paseoa, Algorta berarentzat.	158
<b>baragarri</b> desastrea, trauskila	Zine-aretoa sartu eta <i>Chacal</i> filma ikusi zuten; hor lotura bakarra, lotura <b>baragarria</b> ere bai...	47
<b>baretu</b> lasaitu	Sabela <b>baretu</b> zitzaionean, loak hartu zuen berriro, luze orain ere, tapakietatik kanpora besoak ordea.	348
<b>barreiatu</b> sakabanatu	Medikuaren laguntzaile batek zapaldu zituen konturatu barik, apur bat <b>barreiatu</b> ere bai, gehiegi ere ez.	9
<b>barrundatu</b> susmatu, nabaritu, aurreikusitu	<b>Barrunda</b> zitekeen asko berotuko zuela goizean bertan, zer esanik ez eguerdian.	128
<b>basatan</b> basa edo lokatz artean	Ematen zuen umeak egoten zirela han, gazteak beharbada, etxea abandonatu eta gero, baina aspaldikoak plastikoak, lokaztuta, <b>basatan</b> .	321
<b>bedartza</b> belar handiko eremua	Mojen ikastetxe inguruan ibiltzen ziren, ondoko <b>bedartzara</b> igotzen ziren euria egin arren.	76
<b>beherako</b> kakapirria, kaka zirina, diarrea	Prakak eta barruko arropak behe-behean, orkatiletan, <b>beherakoari</b> ezin eutsita.	99
<b>behin-behineko</b> provisionala	Behin-behineko ikasgelak, etxabeetan, sotoetan, etxe partikularretan, <b>behin-behinekoak</b> beti.	41
<b>beilegi</b> hori, laru	Minbera zeukan joscara eta ohe-jantziak odolez eta orban <b>beilegiz</b> zeudela zikin, horretaz ohartu zen, ia beste ezertaz ohartzen ez zen une batean.	9
<b>beirate</b> kristalezko egitura ( <i>crystalera</i> )	Beheko ataria handia, sofak, koadroak, ispiluak, <b>beirateak</b> .	144
<b>belantzi</b> beladun itsasontzia	Zaldiz ibili da, itsasontziz, <b>belantziz</b> , ez dago makinarik mende batzuk geroagora arte.	208
<b>beliko</b> gerrakoa	Kontakizun <b>belikoak</b> Toscanan gero, miresmenak hainbat urte geroago, ohorea da hitza, eta abar.	39
<b>beneditar</b> apaiz katolikoaren ordena bat	Ezin da jakin, Lazkaoko beneditarrekin ikasi zuen, sistematizazioerako joerari eutsiko zion seguruenik, eta ikasita zuen lekua beharbada ....	23
<b>beratu</b> bigundu	...gosea, txakurra eskura, urkatu, <b>beratu</b> , sikatu, sutan eraldatu, jan...	269
<b>berekatu</b> ferekatu, igurtzi	Zazpi urtez atxiki dizut senharra hila etxian / egunaz arrosapian eta gauaz bi besoen artian / zitroin urez <b>berekatuz</b> astian egun batian.	55
<b>beren-beregi</b> nahita, apropos, berariaz	...inoizko gutxien hitz egin zuen amama Marinari buruz, <b>beren-beregi</b> egin izan balu bezala.	66



<b>bertsu</b> horretan gutxi gorabehera	Sasoi <b>bertsuan</b> , gorputz-atal guztiak ebaki zizkion emakume gazte bati apurka-apurka eta putreei jaten ematen.	11
<b>borrero</b> kondenatuak hiltz. ditu ( <i>verdugo</i> )	Kasu asko egon da ordea, <b>borreroak</b> , torturak...	210
<b>brodatu</b> hariz irudiak egin	Kontatzen zuen nola dagoen dama bat edo neskatxa edo anderea etxean <b>brodatzen</b> edo leihotik begira, aita eta amaren etxean beti.	53
<b>burko</b> almohada	...ez zen deskargarik, ez zuen ezer sentitu, etzatea erabaki zuen. <b>Burkoa</b> hotz zegoen, berehala epeldu zen.	361
<b>CNT</b> anarkisten erakundea	<b>CNTn</b> sartu behar izan zuela esan izan da, baina apur bat nahastuta heldu zela armetara, siglek nahastu zutela.	264
<b>dandarrez</b> Herrestaka, arrastaka	...labain egiten zuten umearen zapata-zolek Bidebarriko harlauzetatik, <b>dandarrez</b> .	41
<b>derrigor</b> nahitaez	Izerditan behar zituen eskuak <b>derrigor</b> .	160
<b>desgogara</b> disgustura, gogorik gabe	Gazta zatia ere <b>desgogara</b> jan nuen usain harekin, ez zidan kalterik egin.	172
<b>desinhibizio</b> lotsa galtzea, ausart jokatzea	...hori izan zitekeela Bierceren zutabeen arrazoietako bat, gaiztakeriarena, <b>desinhibizioarena</b> , zergatik ez, anaiak arrazoitu...	216
<b>diglosiko</b> hizkuntz menpekotasun egoera	Hor umearen lehen espasmo <b>diglosikoa</b> , Algortan, normala ere bai, gaztelaniaz egiten zion jende gehienak...	26
<b>doako</b> dohainekoa	...gogokoena, Jopu txakurra... Izena ere ez da <b>doakoa</b> .	217
<b>edadeko gizona</b> adineko gizona, agurea	Konorterik gabe ere utzi nuen <b>edadeko gizon</b> bat... larritu ere egin nintzen, ez ote nuen hil...	101
<b>egoitza</b> sede	Nola kondenatu zituen, alde batetik, PSE-EEko <b>egoitzaren</b> kontra molotov koktelak bota eta hildako bi eragin zituzten gazteak...	0
<b>egun birik behin</b> bi egunez behin	<b>Egun birik behin</b> aldatzen zituen normalean kamisetak, alkandorak, galtzerdiak...	
<b>egurastu</b> aireztatu	...horregatik sentitzen zuela burua arraro, <b>egurastu</b> behar zuela.	329
<b>ehortzi</b> lur eman, hobiratu, lurperatu	Anderea non <b>ehortziko</b> duten pentsatu behar dute, ohore guztiakin noski; ohorea da armadetako hitzetako bat, errepikatuena.	57
<b>elorri</b> arantzuria, basamakatz (espin)	Hiru soldaduk lapurtu dute neska, hiru kapitainek, arrosa xuriaren azpian lo dagoela, <b>elorri</b> xuria ere izan daiteke bertsio batzuetan...	56
<b>emagin</b> erditzeetako erizaina, emakumea	<b>Emagin</b> batek eskua irakurri zion ospitalean, unibertsitatea amaitu berri: Angolan hilko zela esan zion.	197
<b>enbarazu egin</b> oztopatu, trabatu, molestatu	Pentsatzen zuen, benetan sinesten zuen, ez zutela eskubiderik berari <b>enbarazu egiteko</b> irakurtzen ari zenean.	68
<b>endekatu</b> degeneratu, gain behera etorri	Izan ere, organoak eraikitzen direnetik 15-20 urtera hasten dira <b>endekatzen</b> , biguntzen, nahasten, pieza jakin bat batez ere, gainontzekoa ere bai.	153
<b>erasan</b> afektatu, hunkitu	Inbidia sentitu zuen, ez gehiegi ere, inbidiak ez zion luzaro <b>erasaten</b> ...	189
<b>erauzi</b> extirpatu	...hankak eta besoak ebaki zizkion hasteko, sexu-organoak <b>erauzi</b> gero eta ahoan sartu.	10
<b>ernegatu</b> amorratu, kabreatu	...emakumeak oso mugimendu finez askatu zuen besoa, behartu gabe, <b>ernegatu</b> gabe...	341
<b>errain</b> semearen emaztea	Kanpaiak entzuten dira askotan amaginarrebaren aginduz <b>erraina</b> hiltzen denean.	211
<b>erreparoa eman</b> ardura, kezka	Zapata barik zegoen umea, galtzerdiak baino ez, <b>erreparoa ematen</b> zion Ireneri.	161



<b>erretaula</b> elizako irudizko egitura	Frontoiaren atzean San Nicolás elizari begiratu zion, horma altuei: sakristia hormen atzean, <b>erretaula</b> , aldarea, bankuak.	152
<b>erreten</b> ubidea, kanala, zanga	Odol putzuak askotan ikusten ziren orduan harlauzen marretan <b>erretenetan</b> ...	305
<b>erretilu</b> azpila, bandeja	<b>Erretiluko</b> gehiena jan zuen orduan, astiro hala ere... Fruitu lehorrak irenstea kostatu zitzaion batez ere, ura arinegi amaitu zen.	348
<b>errezel</b> gortina	harlauza apurtu asko zegoen gelako bazter batean, muino txiki bat. Harlauzen artean, gainean, azpian, oihal zatiak, izarak <b>errezelak</b> .	73
<b>errukitu</b> pena hartu, gupidatu	<b>Errukitu</b> egin zen gizona, horraino heldu zen haren errukia, kristaua izango zen seguruen...	191
<b>estarta</b> bidexka, xendra	Hotza eta haizea gorabehera, estartetan zegoenetik ez zuen euririk egin, eskertu behar zuen hori, ez zekien teilatuak utsiko zion.	327
<b>etxekoneko</b> eraikin berean, beste etxeko auz	Begoña Sasietaren <b>etxekonekoa</b> , Arregi, kartzelara sartu zuten, han zeukaten, euskaraz egin zuelako Algortako kasinoan.	42
<b>ezkaratz</b> atondoa, halla	Ateak itxita zeuden noski, baina atarian <b>ezkaratza</b> zeukan, ez zen euria sartzen, sabai txiki bat, nahikoa Irenerentzat.	333
<b>ezpel</b> zuhaitz mota (boj, <i>buxus</i> )	...non lurperatuko duten, esateko modua ere ez da merkea: <i>aitaren baratzean, ezpela baten azpian, liho liliz inguraturik, tonba baten barnian</i> .	57
<b>fed</b> itxaropena	...hobeto erreparatu nien umei handik aurrera, baina berdin joan zen goiz osoa. Fede handirik gabe ari nintzen eguerdirako.	103
<b>garondo</b> kokota	Tiro bi jo zizkieten <b>garondoan</b> 25 zentrimetrora...	60
<b>genozidio</b> giza talde bat akabatzea	1994ko <b>genozidio</b> ahaleginaz gauza asko esan izan da, askok hitz egin du, gutxiatik libratu zirenak batez ere.	11
<b>gonbito</b> okada, goitikina	...lagun hilak aipatu zituen, eta ur zikineko bainuontzietan behin eta berriro ito zituztenak, aurretik itotakoek ileak, <b>gonbitoak</b> eta zigarrokinak ur-azalean.	79
<b>gordean</b> ezkutuan	Alabak dirua hartu eta tabakoa erostera joaten zen noski, amaren <b>gordean</b> ...	78
<b>gorputzaldi</b> gorputz egoera, gorputz era	Mugimendu absurdo batzuk egin zituen gero <b>gorputzaldia</b> neurtzeko.	329
<b>gotor</b> sendoa	<b>Gotorra</b> iruditzen zaiolako aukeratu zuen Emilio Aranazek billar-mahaia, eta lurrarekin bat egin zuen granitozko horma baten ordoan dagoelako.	181
<b>gotzain</b> apezpikua ( <i>obispo</i> )	Eliza ez da ulertu izan askotan, elizgizonak, <b>gotzainak</b> , serorak... Handiegia eliza beharbada...	235
<b>gupida</b> errukia	...errua, barkamena, <b>gupida</b> ... Afrikan bezala baina beste modu batera.	294
<b>haga</b> makila sendoa	Kolpea jo zion <b>haga</b> batez, metalezko haga eta hil egin zuela pentsatu.	192
<b>halamoduz</b> halan-holan, kili-kolo	...iluntzean ere ez bazegoen, irten egingo zen. Sabela berriro ere <b>halamoduz</b> , apur bat nahastuta, amaitu egin zuen geratzen zitzaion ura.	327
<b>harlauza</b> baldosa	Odol putzuak askotan ikusten ziren orduan <b>harlauzen</b> marretan, erretenetan...	305
<b>hazpegi</b> aurpegiaren eitea ( <i>rasgo</i> )	Iruditu zitzaion ordea, lehen baino urrunago zegoela beste kanoia, <b>hazpegiak</b> ez zizkion horren argi ikusten orain gizonari.	342
<b>haztatu</b> ukituz sentitu	...iletik pasatu zion eskumako eskua, gorputz-atal guztiak <b>haztatu</b> zizkion, pijama apur bat altxatu, goitik, behetik, begietara ere begiratu zion.	162
<b>heliografo</b> ispilu izpiz komunikatzeko tresna	Mezuak bidaltzeko sistemetan egin zen espezialista, morse kodea, disko eta banderen sistema, <b>heliografoak</b> ...	248
<b>herren</b> hanka-motza / (eskasa)	Alfredo Borreguero bera, mediku <b>herrena</b> , izan zen Irene Arrias besoetan hartu zuen lehena.	9



<b>herren egin</b> erdi huts egin ( <i>flaquear</i> )	Faulknerrek berak loditu zuen teoria hori ere: <b>herren egiten</b> zuen. Europan zauritu zutela, hori pentsatzen zuten batzuek, hogeita bat urterekin.	69
<b>hierarkia</b> ordena, gradazio baten arabera	Sinesten dute benetakoa dela guztia, <b>hierarkia</b> esate baterako: sinesten dute errealak direla sarjentuak, tenienteak, jeneralak...	
<b>higuin</b> gohaindura, nazka	Nahasten zirenean <b>higuina</b> ematen zien, hozkia, frontera soldadu nobleak baino ez dira joaten.	245
<b>hilotz</b> gorpu, hildakoa	Baina aldapa igotzen hasi nintzenerako, ikusi nuen ez zirela lehenengo hiru haiek bakarrik, <b>hilotzak</b> bata bestearen atzean zeudela...	174
<b>hozki</b> hozkamina, kirria ( <i>dentera</i> )	Nahasten zirenean higuina ematen zien, <b>hozki</b> a, frontera soldadu nobleak baino ez dira joaten.	245
<b>huskeria iruditu</b> sinplekeria, balio gabea	...pentsatzen ere egon zen: <b>huskeria iruditu</b> zitzaion orduan...	189
<b>hutu</b> Ruandako tribua	Tartean beste batzuk ere hil zituzten, euskal herrietan, munduan, Ruandan milioi bat tutsi, <b>hutuak</b> ere bai.	195
<b>idor</b> siku	Loak hartu zuen Irene une batean beraz, baina konturatu ere ez zen egin lotan gelditzen ari zela, ametsik gabe, [...] lo idorra beharbada.	187
<b>igarri</b> nabaritu, somatu	Begirada gogorra nahi zuen emakumeak, <b>igartzen</b> zen ezin zuela.	99
<b>ihar</b> haragi lodi gutxikoa, hezurtsua	...errugbian ere aritu zen, gorputz <b>iharra</b> izan arren, arina, ez zuten erraz harrapatzen, plakatzeke ere zaila.	247
<b>ihartu</b> sikua, lehortua	Hostoak jarri nituen lehorrak gehienak, <b>ihartuak</b> .	171
<b>ilar</b> baba txikia ( <i>guisante</i> )	Eskuaz hartu zuen arrosa, okela zatiren bat, oso txikiak, <b>ilarrak</b> .	328
<b>indultu</b> kondena barkamena	Urtebete garrenera irten zela esaten da, <b>indultua</b> eman zioten, Algortara itzuli zen.	205
<b>intsentsu</b> hauts usaintsua ( <i>incienso</i> )	<b>Intsentsua</b> baliatu dute ez usteltzeko usainari, aurre egiteko beharbada, ereinotza ere bai.	55
<b>intziri</b> auhena, kexu oihua	<b>Intziri</b> txiki bat egin zuen Irenek, kuzkurtu egin zen, bere baitan bildu, bularrak belaunen kontra, hankak oso itxita.	362
<b>iruditeria</b> imaginarioa, mentalitatea	Pisu handia izan zuen Eustakio Mendizabalek ETA barruan, ETAKoen <b>iruditerian</b> , ETAKoak ez zirenen iruditerian ere...	60
<b>itaxur</b> teilatu ertzeko euri ur tanta	Harrizko zorua osorik zegoen zati batzuetan, etxe inguruan batez ere, <b>itaxuraren</b> azpian.	73
<b>itolarri</b> asfixia, itoaldia	Itolarriak kontatu beharko zizkien, taupaden saltoak...	124
<b>itzarri</b> esnatu, iratzarri	Esaten zuen Olgak gau osoak egin behar zituela <b>itzarrik</b> Sabina amonak...	258
<b>izara</b> mihisea	...aitak esnatu behar zuen orduan. <b>Izarak</b> apur bat igo ditu, sorbaldetaraino.	285
<b>izter</b> hankaren goi aldea ( <i>muslo</i> )	Salto batzuk egin zituen, kolpeak eman zizkion bere buruari, <b>izterretan</b> , besoetan, sorbaldetan, mugimendu arin batzuk egin zituen...	323
<b>joskura</b> artikulazioa	Minbera zeukan <b>joskura</b> eta ohe jantziak odolez eta orban beilegiz zeudela zikin, horretaz ohartu zen, ia beste ezertaz ohartzen ez zen une batean.	9
<b>kapar</b> iruzurra, engainua	Zazpi urte igaran dit <b>kaparraren</b> pian, / bele-erroiek uste zien sagarroia nintzala, / sagarroiak uste zian haren sagarra nintzala.	220
<b>kardiologia</b> bihotzeko medikuntza arloa	“Zure <b>kardiologia</b> kontu hori. Hori baino ez. Horri tiratu ahal diogu.”	356
<b>kokots</b> bidarra, aurpegi beheko intengu	Umearen aurpegia ahal zenik eta argi gehienarekin erakutsi nion, <b>kokotsetik</b> altxatuta.	104





<b>kolpatu</b> zafratu, jo, astindu	...baina hamar urte geroago harrapatu zuten matxinoek, 1990ean. <b>Kolpatu</b> egin zuten, torturatu, belarriak ebaki eta hil.	77
<b>kordokatu</b> dar-dar eragin, eskandalizatu	...lan gutxi, txarto, erabat nahastu zuen autobuseko emakumeak, <b>kordokatu</b> , munduko garun guztiak ikusi zituen garun hartan...	133
<b>krisketa</b> maratila, ireki-ixteko gailua	Barruko <b>kisketari</b> eragin zion gero, Irenek argi entzun zuen	325
<b>labezomorro</b> intsektu zapala ( <i>cucaracha</i> )	Beste izen batzuk ere asmatu ziren, okerragoak beharbada, baina <b>labezomorroena</b> izan zen gehien erabili zena...	35
<b>lako</b> bezalakoa	...berak egina, harribitxi bat, munduan gutxi <b>lakoa</b> , ia bakarra...	153
<b>lantzean behin</b> noizbehinka	<b>Lantzean behin</b> egiten zuen, ez beti, negar moduko bat ere izan zitekeen.	105
<b>larregi</b> gehiegi	Jende asko ibiltzen zen beti, larregi ere bai, erdiko kaleetatik behintzat.	150
<b>lausoago</b> zehaztasun gabe, difuminatuta	... <b>lausoago</b> gogoratzen zuen ikastolatik deitu zuten eguna.	154
<b>likistuta</b> zikin, koipetua	Irene Arriasek denbora luzean erabili zituen buruan etxe abandonatuko katuak, odola, ileak <b>likistuta</b> , arnasa.	77
<b>likits</b> lizuna (sexuzkoa)	Narrazio bat ere bazeukan andreak gorpua norena zen azaltzeko, iluna, <b>likitsa</b> ere bai beharbada.	135
<b>litekeena izan</b> posible izan	... <b>litekeena zela Herman Melvillek ere Freud irakurri ez izana eta seguru</b> zegoela Moby Dickek sekula ez zuela haren liburu bat zabaldu.	68
<b>loba</b> iloba (bizk.)	Andrearen loba bat hurbildu zen ospitalera.	134
<b>loberritan esnatu</b> asaldatuta itzartu	...baina <i>Operación Ogro</i> irakurri zuenerako ia egunero <b>esnatzen</b> zen <b>loberritan</b> erabateko heriotzaren kontzientziarekin, dardarka askotan.	44
<b>loki</b> buruaren belarri aurreko gunea	Alabarengana hurbildu da gero, musu eman dio ilea eta <b>lokia</b> elkartzen diren zatian eta berehala hasi da etxeko gauzak antolatzen.	281
<b>lorrindu</b> estropeatu, kakaztu	Horrela <b>lorrindu</b> da azkenean damaren bertutea ere, lilia, floria, errealitatea zikinagoa da beti.	55
<b>magnizidio</b> pertsonaia boteretsu baten hilket	Gobernuaren egoitza tankeekin tirokatzea ez da delitua, [...] edonork ikus dezakeen arren, hor ez da <b>magnizidiorik</b> .	228
<b>mailatu</b> kolpearen marka	...gorputz atal guztiak <b>mailatuta</b> zituela ikusten da argazkietan, 1981eko otsailean.	86
<b>maiztu</b> gastatua, zaharkitua	Komandokoek erantzun zuten txepelkeriak zirela, zaku haiek rastro-an erosi zituztela, <b>maiztuta</b> .	47
<b>makal</b> ahula	Herrialde <b>makalak</b> estatu boteretsu bihurtu dituzten tiranoak ezagutzen ditugu: Zesar, Augusto edo Mussolini.	34
<b>matxuratu</b> hondatu	Gaueko autobusetik jaitsi zenean joan ziren Eichmanen enkontrura Mossadekoak, autoa <b>matxuratu</b> zitzaieला simulatu zuten...	30
<b>mengel</b> ahula	Inpresioa da erraz akaba daitekeela pertsona hori, <b>mengela</b> , ostiko batzuk baino ez; igartzen da berehala lehertuko litzaiokeela aurpegia...	31
<b>metatesi</b> silaba aldaketak hitz barnean	Ematen du britainiarrak direla, baina internetek <b>metatesi</b> asko egiten ditu...	219
<b>miaketa</b> arakatzea, erregistroa	Halako zerbait espero zuen Irenek, autoa gelditzea, <b>miaketa</b> , identifikazioa.	300
<b>nasaitu</b> lasaitu, laxatu	Baina ohiturak <b>nasaitu</b> egiten dira berehala, ohitura izan baino lehen askotan, ahulaldiak egoten dira, logikoagoa delako jesarrita egotea.	95
<b>obelisko</b> harri bakarreko piramidea	udaletxe aurrean [...]. <b>Obelisko</b> bat jarri zuten han 1937ko uztailaren 21ean, gerrako hildakoak omentzeko, alde batekoak...	158



<b>odolustu</b> odol gabetu, galdu	Gauza da azken 70, 80, 90 urteetako indarkeriak, [...] erraz ikus daitezkeela, [...] pertsonak begietatik 40 zentimetrora hiltzen, <b>odolusten</b> ...	221
<b>ogerleko</b> duro (bost pezetako txanpona)	Zilarrezko 80.000 <b>ogerleko</b> ordainduta askatu zituzten soldadu guztiak azkenean; Etxebarrietaren ogerlekoak denak, ez gobernuarenak.	59
<b>oinetxe</b> familiako buruaren jatorrizk etxe	<b>Oinetxea</b> Irisarrin zeukala esan zidan, Nafarroa Beherean, hain zuzen Jean-Pierre Minaberri kopilotuaren jaiotzetatik aski hurbil.	51
<b>okzipital</b> buru osteko azpiko hezurra	Bala zulo bat bizkarrean eta beste bat buruan, frontalean sartu eta okzipitalean kanporatu zena.	9
<b>olan</b> estaltzeko oihal sendoa, toldoa	Anbulantziak gidatu zituen Frantzian eta marrazkiak egiten zituen ambulanzien <b>olanetan</b> , gurutze orriaren ondoan.	67
<b>oldarkor</b> erasokorra, indar handikoa	Unibertsitateko ikerlariaren jarrera ere ez zen <b>oldarkorregia</b> gainera.	33
<b>orban</b> zikinunea, mantxa	<b>Orban</b> marroi bat ere utzi zion atzamar luzean...	349
<b>orga</b> gurdia, karroa	Bazekiten <b>orgarekin</b> egunak behar direla haraino, hori bazekiten, badakite nolako bideak diren, biderik ere ez batzuetan, Berorrek ere badaki.	167
<b>ortozik</b> oinutsik	Doministikuka hasi da, <b>ortozik</b> oraindik, pijama, eskuak hoztu zaizkio, lepo ingurua, gose da.	287
<b>ostendu</b> ezkutatu	Leihoetan ez zegoen argirik, baina ordu laurden baino gehiago egon zen begira badaezpada ere, makurtuta, <b>ostenduta</b> .	327
<b>ozartasun</b> gehiegizko ausardia ( <i>temeridad</i> )	Ofizialak ezin dira koldarrak izan, soldaduak ere ez, herritarrak bortxatzen dituzten arren, <b>ozartasuna</b> , ausardia, ohorea eta abar.	200
<b>papiro</b> idazteko lamina egiptoarra	Janvier Munyazanak <b>papiroei</b> begira jarraitzen zuen Ireneren trena...	190
<b>pentzuan</b> arduran, esku	...inoren <b>pentzuan</b> beti, kartzelako zazpi urte eta gero.	156
<b>petril</b> bide bazterreko hesitxoa, babesa	Txopoetara nahi zuen, han egoten zelako lagunekin, asteburuetan, udan, euren adineko talde asko inguruan, bankuetan, harrizko <b>petrilean</b> , lurrean.	155
<b>poliestireno</b> eraikuntza materiala, kortxo zuri	Ceauscuk berak asmatu zuen zer egin, edo Ceauscuren ingurukoek: <b>poliestirenoz</b> egin zituzten barazkiak, gaztak...	237
<b>porlan</b> zementua	Olga bera, Matematikan lizentziatua ordurako, hotel erraldoi bat egiten aritu zen, adreilua, <b>porlana</b> .	74
<b>prekario</b> laburra, ez ziurra	...unibertsitatean ikasi ahal izango zuten eskola <b>prekario</b> haren ondoren...	41
<b>-ren buruan</b> garrean, geroago	Irene Arriasen osabari eskatzen zion gero madaria hozkailuan sartzeko eta 30 <b>minuturen buruan</b> ateratzeko.	157
<b>sagarroi</b> kirikiñoa, trikua, kirikolatza	Zazpi urte igaran dit kaparraren pian, / bele-erroiek uste zien sagarroia nintzala, / <b>sagarroiak</b> uste zian haren sagarra nintzala.	220
<b>sarkor</b> barneraino sartzen dena	Usain leuna hasieran, gero eta <b>sarkorragoa</b> gero, desatsegina, Txakurrenara heldu arte usaindu nuena...	172
<b>sarraila</b> irekitzeko-ixteko mekanismoa	<b>Sarrailan</b> sartu du giltza orduan, eta atea zabaltzeko mugimenduan, ukitu txiki bat egin dio ateko egurrari euritakoarekin.	281
<b>sarraski</b> hilkuntza, masakrea	Kontatzen du [...] euren herriko elizan <b>sarraskiak</b> izan eta gero, txakurrak eta piztiak baino ezin zirela barrura sartu.	269
<b>sasoi</b> aldia, aroa	Ematen du ez zela <b>sasoi</b> batean horren arraroa ere izango.	00?
<b>sastraka</b> sasitza, landaretza pilaketa	Tosun ez zebilen inor noski, han egongo zen zain, ezkutatuta ahal bazen, <b>sastraketan</b> , hesien ostean beharbada...	320
<b>setio</b> inguratzea, gero erasotzeko	Modu gozoan tratatu dute kapitainek gorpua beraz, <b>setioak</b> antolatzen dituzten bezala, bonbardaketak, airetik, lehorretik.	57





<b>sodomizatu</b> koito anala	Irainak erakusten zituzten, sexualak, biluzik, <b>sodomizatuta</b> ere bai.	223
<b>soildu</b> bakandu	Illarak ia beti, <b>soilduago</b> zetozen batzuetan, gauez batez ere, noranzko berean, astiro.	97
<b>solbentzia</b> kapaz, ekiteko moduan	Etzetik bereiztu zen, uste baino arinago gorputza, junturak, ez betiko moduan baina <b>solbentzia</b> halako batez.	335
<b>sosegu</b> lasaitasuna	Baina Irene Arriasek ez zuen edan nahi, ez zuen tabernara sartu nahi, kea, musika, <b>sosegurik</b> gabe, zarata.	147
<b>sotil</b> ederra, dotorea	Oso gauza <b>sotilak</b> , ez zituzten ulertuko, ulertuarena egingo zuten, desberdin begiratuko zioten.	124
<b>subdito</b> estatuaren menpekoa	Oraindik uste zuten Ceaucescu zirela, <b>subditoak</b> bezala tratatu zituzten militarrek, baina gehiago dira agure-atsoak, berehala hil nahi dituztenak.	239
<b>suhi</b> seme politikoa	Marina Zabalaren <b>subhietako</b> batek behin eta berriro errepikatu zuen hurrengo egunetan pena hori zuela, amaginarrebak ez zuela Franco hilda ikusi...	58
<b>sumatu</b> igarri, nabaritu	<b>Sumatu</b> zuen gizonak ez zirela tunelean bere atzetik sartu, baina ezin zuen ziur esan.	308
<b>takikardia</b> bihotz taupada azkarrak	Ez zen takikardia, taupadak ez ziren deskontrolatzen, baina <b>takikardiaren</b> hasieraren antza zuen: zirkin horrekin hasten ziren beti...	123
<b>tangentzialki</b> pixka bat ukitu, puntu batean	Portuko hiru edukiontzik ere estaltzen dute, <b>tangentzialki</b> baino ez bada ere.	181
<b>tapaki</b> burusia, manta, estalkia	Sabela baretu zitzaionean, loak hartu zuen berriro, luze orain ere, <b>tapakietatik</b> kanpora besoak, ordea.	348
<b>tatarrez</b> arrastaka, herrestan, narras	Izerdi tanta bat lehertu zitzaion aldakan, besapetik zuzenean, saihetsetatik <b>tatarrez</b> jaitsi barik.	142
<b>tirano</b> boterea gehiegikeriaz egiten due	Herrialde <b>makalak</b> estatu boteretsu bihurtu dituzten tiranoak ezagutzen ditugu: Zesar, Augusto edo Mussolini.	34
<b>titi-sagar</b> bularra, titia	...kolpeak hartzen zituen umeak <b>titi-sagarraren</b> kontra, sudurrean eta kokotsean batez ere.	10
<b>titimutur</b> titiburua, titipunta	Irene Arrias umearen buruak gora eta behera egiten zuen, amaren <b>titimuturra</b> ahoan sartzeko baina ez zuen topatzen, ...	10
<b>topaukotsut</b> topatuko dizut	— <i>Urten bidera eta hil egin behar dozu</i> —esan dio semeari— <i>edo hori hil egizu eta nik topaukotsut askoren jaubea.</i>	209
<b>trangatuta</b> trabatuta, blokeatuta	Egun horretan ikasi nuen harri txikietan behitzat <b>trangatuta</b> ez gelditzen.	171
<b>troxatu</b> painalak edo troxak jarrita	Ondo <b>troxatuta</b> utzi zuen umea, epeletan, pertsona asko hil zituen hotzak.	80
<b>tu egin</b> listua bota	...listua ere, lo ondokoa, normalean baino lodiagoa, zapore horrekin sentitu nuen. Hiru lau aldiz <b>egin</b> nuen <b>tu</b> belarretan.	173
<b>tupustean</b> ezustean, ustekabean	... <b>tupustean</b> topatu zituzten: hiru izan zitezkeen, gehiago ere bai, Irene baino nagusiagoak, ez asko.	72
<b>tutsi</b> Ruandako tribua	...familia <b>tutsi</b> batek lau seme-alaba utzi zizkion elizgizonari masakreen sasoian, etxean gordetzeko, babesteko...	234
<b>txakur hiztun</b> erregimenaren propagandistak	Don Trifon diktadorea erakutsi zuen hor, eta Don Trifonen zerbitzariak, txakurrak, <b>txakur hiztunak</b> .	217
<b>uger</b> herdoila, zikina	Izan ere, ez da ur garbia, <b>ugerra</b> ere ez baina ez guztiz gardena...	77
<b>uhertuta</b> orbanduta, lohi	Igogailua bera ere zaharkituta, pintura altxatuta, idatziekin, <b>uhertuta</b> ere bai zati batzuetan, sabaiko junturretan batez ere.	144
<b>urkabe</b> urkamendia	Epailek ez zioten sinetsi, <b>urkabera</b> bidali zuten.	31



<b>urkatu</b> sokatik zintzilik ito	Bertsio ofizialak esaten du, bestetik, Ulrike Meinhofek bere burua urkatu zuela...	18
<b>urmael</b> estankea, ur putzua	Mathilde andrea senar hutuak hil zuen gero labankadaz, Rwaki-Birizi <b>urmaelaren</b> ertzean, ume tutsia zaintzen aritu zela jakin zuenean.	12
<b>urratua</b> arraskada, ebakidura	Irene Arriasek ia zentimetro erdiko <b>urratua</b> egin zion amari jaio zenean, Algortan, 1971ko urtarrilaren 25ean.	9
<b>xantaia</b> mehatxu egin etekina lortzeko	Jakin da Abu Ghraiben, esate baterako, <b>xantaia</b> moduko bat ere bazela: galduta zeunden atxilotuak torturen bideoak haiek zabaltzen baziren...	223
<b>xukatu</b> lehortu, sikatu	Itxarongelan sartu direnetik zazpi ordu betetzeko daudenean, egunkaria utzi du gizonak, zapi bat atera, bekokiko izerdia <b>xukatu</b> eta jaka kendu du.	178
<b>zanpatu</b> indarrez zapaldu edo menperatu	...hasieratik <b>zanpatzeko</b> gomendatu zuen Gipuzkoako gobernadore zibilak...	52
<b>zantzu</b> seinalea, aztarna	Esan zieten medikuei andrearen neba hilda topatu zutela etxean, tapaki ugariren azpian eta ustel <b>zantzuekin</b> .	135
<b>zendu</b> hil	Autoak harrapatu zuen egunean bertan <b>zendu</b> zen Marina Zabala, gauean.	58
<b>ziega</b> kalabozo	Bertsio ofizialak esaten du, bestetik, Ulrike Meinhofek bere burua urkatu zuela Stuttgarteko <b>ziega</b> batean.	18
<b>zinismo</b> ageriko lotsagabekeria-faltsuker	Ezin da jakin kezkatu ote ziren hain nabarmen geratzearen, baliteke ezetz, <b>zinismoa</b> ere ikasi egiten da...	223
<b>zirkin</b> mugimendutxoa, higidura	Ez zen takikardia, taupadak ez ziren deskontrolatzen, baina takikardiaren hasieraren antza zuen: <b>zirkin</b> horrekin hasten ziren beti...	123
<b>zitroin</b> limoia	Zazpi urtez atxiki dizut senharra hila etxian / egunaz arrosapian eta gauaz bi besoen artian / <b>zitroin</b> urez berekatuz astian egun batian.	55
<b>zurbil</b> margul, kolore gabe	Emakumeari begiratu nion, oso txarto zegoela iruditu zitzaidan, inoiz baino <b>zurbilago</b> , begiek erdi itxita.	109
<b>zutundu</b> zutitu, zutik ipini	Birritan <b>zutundu</b> zen, zorabio minimorik ere ez.	331